



EBAZPENA, 2023ko irailaren 15ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzen duena (hautaketa-prozedurak 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAA), hautaketa-prozesuetarako zenbait deialdi egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere.

2023ko uztailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, aipatutako hautaketa-prozeduretan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta behin aztertuta, aipatutako deialdiaren 4.3 oinarriak xedatutakoaren arabera,

#### EBAZTENI DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda (hautaketa-prozedurak 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren).

2. artikulua.– Ebazpen hau, bai eta behin betiko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – parte hartzen den prozeduraren arabera, hautatu «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko lehiaketa-oposizioa» edo «EPE 2022. Irakasleak. Ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa») – hautatu parte hartzen den prozedura – «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

3. artikulua.– Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonak prozedura honetan parte hartetik eratorritako eskubideak izateko, 12. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta azteketa medikoa gainditu beharko da.

4. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 15a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA GUERRERO OCEJO